



ULTIMOS  
AVISOS  
AZKEN  
OHARRAK



14

CARRERA DE EMPRESAS  
ENPRESEN LASTERKETA



ORGANIZAN

EL  
DIARIO  
VASCO

DONOSTI  
EVENTOS

ADEGI



---

## **AZKEN OHARRAK**

1.- Lasterketa, maiatzak 14, igandearen goizeko 10:00etan abiatuko da **Alderdi Ederretik**. Parte hartzaileei irteera eremura 15 minutu lehenago bertaratzea eskatzen zaie.

2.- Lasterketarako zenbaki-biletak bi leku desberdinetan egingo dira, talde bakoitzak izen-emate-formularioa betetzeko orduan aukeratu duen tokira joanez. Biletatokiak helbide eta ordutegiak honako hauek dira:

### **Donostia**

Lurauto kontzesionarioa (Ramón María Lilli, 1)

Maiatzak 12, ostirala 9:00tik 13:00tara eta 16:00etik 19:30tara.

### **Oiartzun**

Lurauto kontzesionarioa (Poligono Makarraztegi poligonoa, 3. Ctra. N-I, Km. 470)

Maiatzak 13, 10:00tik 13:00tara.

3.- Aurten, Emakumeen Itzuliarekin bat egiten duenez, Boulevarderako sarbidea moztuta egongo da. Hala ere, lurpeko aparkalekua irekita aurkituko duzue. Lasterketa bukatu ondoren, aparkalekuko irteera "Residentes" irteeratik izango da, Legazpi Kalera norabidean.

4.- Lasterketaren kronometrajea txip-aren bidez egingo da. Txip hori taldeak jasoko dituen lau dortsalen artean baten egongo da.

5.- Gogorazten dizuegu helmugara talde bateko lau korrikalariak elkarrekin heldu behar direla eta elkarrekin egon behar direla epaileek taldearen kontrola egin arte. Talde bati korrikalari bat falta baldin bazaio epaileak taldea kanporatuko du.

6.- Ondarretako kabinetan lanak amaitu ondoren, ibilbideak jatorrizko trazadura berreskuratzen du. Ikusi itsatsitako planoak.

7.- Helmugan sartzeko gehienez ordu ta laurden bateko epea edukiko duzue.

**8.- Lasterketaren amaieran sari banaketa egingo da, 11:00tan. Arren partehartzaileei 10:45tan podiunera hurbiltzea eskatzen zaie.**

9.- Aurten bi ur-hornidura gunek egongo dira ibilbidean. Lehenengoa, Insalus botilatxoarekin, Kontxako Kafearen parean egongo da, Antiguarentz. Bigarrena, sareko urarekin, Satrustegi pasealekuaren amaieran. Hornidura gunetatik gertu edukiontzia egongo dira botilatxoak edo edalontziak uzteko. MESEDEZ, EZ BOTA LURRERA HONDAKIN HORIEK.



---

10.- Aurten ere, lasterketako partaideek dutxak erabiltzeko aukera edukiko dute **Manteo Polikiroldegian**. 9:00etan irekiko dituzte ateak 13:30ra arte. Dohaineko sarrera edukiko dute lasterketaren dortsala erakusterakoan.

11.- Aurten, berrikuntza gisa, helmugara iristen den parte-hartzaile bakoitzak domina finisher bat jasoko du.

12.- Udaletxeko terrazan doako masaje zerbitzua egongo da behar dutenentzat. Zerbitzu hori BI-K Masaje Eskolako ikasleek eskainiko dute.


13.- Parte-hartzaile guztiek istripu aseguru bat izango dute Insurance Sport konpainiarekin. Lesioren bat edukiz gero Poliklinikara joan beharko zarete lasterketaren dortsala erakutsiz.

14.- Igande arratsaldean argitaratuko da bai lasterketaren web orrian ([www.carreraempresas.com](http://www.carreraempresas.com)) bai Diario Vasco web-orrian ([www.diariovasco.com](http://www.diariovasco.com)) lasterketaren sailkapena denborekin, eta ateratako argazkiak.


15.- Astelehenean [www.diariovasco.com](http://www.diariovasco.com) webgunean argitaratuko da helmugako kameraren bideoa, eta ekipo bakoitzaren iritsiera ikusi ahal izango da, dortsal zenbakia sartuta.



## IBILBIDEA



## ALDERDI EDER PLANOA



**¡TERRAZAKO IRTEERA ITSASOTIK HURBILEN DAGOEN ZONAKO ESKAILERA METALIKOETATIK EGITEA BEHARREZKOA DA!**